



Ikastetxeko Zuzendaria

Ezagun dago eta zehatz-mehatz demostratuta: tabakismoa morbillitate- eta hilkortasun-zio garrantzitsua da, osasunean eragin handia du; gainera, ekonomia-ondorio negatiboak dakartza maila guztietan. Egoera hori larriagotu egiten da langileek ohiz erretzen den toki itxi eta konpartituetan lan egiten dutenean.

Osasun arazo larri horren aurrean, Europako zenbait Osasun Ministeriok tabakoaren ketik libre egoteko neurriak hartu dituzte, horietariko bat langiroan barrena edozein gune itxitan erretzeko debekua delarik, baita ikastetxe eta unibertsitateetan ere. **Neurri horiek ontzat hartuta daudenez gero, gure Autonomia Erkidegoan bete beharrekoak dira.**

Hori guztia dela eta, Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzak eta Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak **Tabakotik desohitze-ko terapiak** berriro eskaintzea erabaki dute. Doakoak dira ikastetxeetako irakasle eta ez-irakasleetzat, ondoko dokumentuan zehazten den bezala.

Eman, mesedez, zure zentroan tabakotik desohitzeko doako eskaintza horren berri, erretzaileek bera aprobeitza dezaten, hala nahi izanez gero.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urtarrilaren 21a

Itziar Garaizar Agirre
Directora de Gestión de Personal
Departamento de Educación

Margarita Viciola García
Directora de Salud Pública
Departamento de Sanidad